

C.C.P., KRISTAU ELKARTE HERRITARRAK

Paulo Aguirrebaltzategi

Paulo Aguirrebaltzategi, comenta en este artículo, el nº 28 de la revista "Comunidades cristianas populares" de Madrid, informando sobre la "campaña pro-derechos humanos en la Iglesia que, al parecer, va tomando cuerpo en distintos ambientes cristianos-populares. "En lugar de declarar los derechos humanos hay que declarar los derechos de los pobres. Y los pobres son los que no tienen poder político, económico, cultural ni social".

A continuación, y para terminar, nos llama la atención sobre la futura publicación del "Derecho Eclesial" o canónico. "Malo sería que el derecho en la Iglesia estuviera principalmente pensado para poner orden dentro de ella". Por el contrario, la tesis del autor, consiste es que "el Derecho eclesial debería ser un instrumento para fortalecer y salvaguardar los derechos del pueblo y cristiano y de cada cristiano en particular".

Egun hauetan aldizkari bat irakurtzen ihardun naiz. "Comunidades cristianas populares" du izena; Madril-go Kristau Elkarte Herritarrek argitaratzen dute. 28. zenbakiarekin hirugarren urtea batetzen du aldizkariak.

Herria 2000 Eliza aldizkariaren inguruan dabilenak ezaguna du seguruenik Madrilgo aldizkari hori ere; eta haren nekeak ezagutzen dituen ez da harririk, "Comunidades cristianas Populares" aldizkariak ere bere oihua jaulkitzen baldin badu, ekonomiazko laguntza eskatuz: "La economía nos ha hecho restringir páginas y números el último año. Esperamos un esfuerzo colectivo para superar estos problemas"

q Guzti hau normala iruditzen zaigu, Kristau Elkarte Herritarrek ez dutela inongo indar ekonomikoren babesik ikustean. Horixe dute, hain zuzen ere, beren indarra! Baina bestalde, beren barruko indarra ere galdu egin dute; lehen urteetako bizitasuna moteldu egin da, eta Kristau Elkarte Herritarrek beherantz etorri dira. Seguruenik ez da erraza etengabe tentsioari eustea.

Baina burrukari eutsi beharra dago, eta bide horretatik doa irakurtzen ari naizen aldizkaria, "Giza eskubideak Eliza barnean" aztertuz. Kristau Elizaren barneko askatasunaren aldeko burruka bizkortu nahi du, hain zuzen, zenbaki honek.



ELIZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Aldizkariaren zenbaki honek ez du bakarrizketarik muntatu edota bulegoko go-goeta bakartiak eskaini nahi. Kristau Elkarten ahotsa izan nahi du, eta horiek azken aldi aurrera daramaten elkarrizketa eskaini eta luzatuz dator. Gaiari buruz egindako galdeketa bati zenbait kristau elkarten emandako erantzunak jasotzen ditu, alde batetik. Oso interesgarria da hoiek ematen dituzten erantzunak. Batzu gogorak, Elizari buruz ematen diren eritziak: mingarriak! "La Iglesia es un estado de poder, acumulado a base de reprimir al pueblo de Dios", esaten du erantzun batek. Erantzunak ez dabiltzurikeritan, epaiketak egitean, ez eta bigunkeriatan, beren eskakizunak jarztean.

"Campaña pro derechos humanos en la Iglesia" delakoren berri ematen du aldizkariak. Madrilen sortu eta bultzatu da ekinaldi hau. Hiru asmo nagusi nabarmentzen ditu: Oinarriko kristauak kontutara eraman. Eliza barnean dituzten eskubideei buruz; Eliz hierarkia kontutara eraman, kristau elkarte barruan duten serbitzuzko eginkizunari buruz; jendea kontutara eraman, Hierarkia ez dela Eliza osoa eta honen barruan haniztasun handia dagoela.

Madrilgo kristauen II. topaketarako gaia da, hain zuzen, ekinaldi honetan pres-tau nahi dena. Horretarako denen partehar-tzea eskatzen da, eta aztergaiak eskaini ere bai: a) Lekuko elkartearen autonomia: mi-nistraritzak eta karismak; b) Agintea, ira-kaslegoa eta kontzientzi askatasuna; c) Oinarritzko eskubide batzuren estudioa: emakumearen eginkizuna, pobreen eskubi-deak, Elizaren demokratikotzea...

Madrilgo topaketara joango ez diren kristau alkerte herritar guztientzat eta edo-zein kristaurentzat ere aztergai biziak direla uzte dut.

GIZA ESKUBIDEAK ALA PO-BREEN ESKUBIDEAK

Kristau elkarte herritarrek aurrean jarri duten arazo, gogoeta eta ekinaldiaren sus-traian eta oinarrian ideia nagusi hauxe dago: giza eskubideen asmoa ez dela era abstraktuan jarri behar, eta bai gizarteko zapalketaren eta klasearteko burruka kon-kretuaren barnean.

Giza eskubideen aldeko deklarazio handiak —hemezortzigarren mendetik datozenak— gizatasunaren kontzeptu abs-traktutik abiatzen dira, eta gizakien berdint-asun abstraktua baiesten dute. Baina ez dute kontutan hartzen, historia eta gizarte konkretuan agintedunen eta aberatsen eta indartsuen egoera, alde batetik, eta klase herritarren, pobreen eta indargabeen egoera ez direla berdinak; alde bien arteko etenak eta burrukak ukatu egiten du berdin-

tasuna eta ezberdintasuna nabarmendu. Honelako gizartetan guztien berdintasuna deklaratzeko eta guztientzako giza eskubi-deak oihukatzea, asmo idealista besterik ez da; eta sarritan ezberdintasuna eta zapal-kuntza ezkutatzeko besterik ez du balio.

Giza eskubideak deklaratu beharrean, pobreen eskubideak deklaratu beharra dago, eta horien aldeko burruka eraman behar du Elizak. Pobreak, berriz, aginte politikorik, ekonomikorik, kulturazkorik eta sozialik ez daukatenak dira. Hauen aldeko eskubideen deklarazioa berehala eskubide horien aldeko burruka bihurtzen da, be-netan horien zapalkuntza eta pobretasuna gogotan hartzen baldin badira.

Aldizkarian datorren artikulu batek la-burtzen du ederki puntu hau: "La cuestión decisiva no son los derechos humanos, tal como están internacionalmente declarados y reconocidos: la cuestión decisiva es **quiénes se sirven de ellos y a quiénes se sirve con ellos**".

Gogoz irakurri dut "'Comunidades cristianas populares" aldizkariaren zenbaki hau. Bertako ideia batzu jaso ditut; eta ez dut ia ezer nere aldetik erantsi.

ELIZAREN ZUZENBIDEA ETA KRISTAUAREN ESKUBIDEAK

Kontzilio ondoko urteetan eratu zen Eliz zuzenbidea erreformatzeko batzordea. Kontsultak egin ziren munduko apezpikuen artean. Eztabaidak ere izan ziren teologoen artean eta Eliz legelarien artean.

Geroztik, urteak joan eta urteak etorri, ixildu egin da ageriko elkarrizketa eta ezta-baida. Vatikanoko bulego itxietan ari ote da ernetzen Elizaren Zuzenbide berria? Seinale txarra litzateke. Elkarrizketa-eztabaidak ixildu eta ahaztu erazi ondoren, ustekabean eta tranpaz bezala Kristau Herriari Zuzen-bide berria ezartzea ez litzateke ez zuzen-bidezko eta ez eskubidezkoa izango. Hase-ratik amaieraraino suspertu eta mantendu behar eztabaida irekia eta zabala kristauen artean.

Dena dela, orain artekoa metodoaren arazoa da. Baina ba da besterik ere, barne-barnean kezkatzen gaituenik. Zein izango da Zuzenbide berriaren filosofia —edo, nahiago baldin bada, teologia—?

Txarra litzateke, Zuzenbidea Eliza bar-nean ordenua berrezartzeko dela pentsa-tzea, eta horixe abiapuntu jartzea. Kristau Herri barneko eta kristau bakoitzaren aska-tasuna sendotzeko eta zaintzeko tresna izan behar du Eliz Zuzenbideak. Eliz Zuzenbi-dearen liburuak kristauen eskubideen libu-rua izan behar du, eta ez obligazioena ba-karririk: hauek eta haiek loturik doaz; baina ikuspegiarena da arazoa.

Tristeza litzateke, Zuzenbide berria Eliz aparatu eta egitura sozial konplikatuaren li-burua izatea gehienbat, eta milaka artikulu bihurri horren burokrazia astuna zaintzeko eta finkatzeko ematea. Alderantziz, kristauen sormena edo kreati-bitatea bizkortzeko eta bideratzeko gida-liburua izan beharko lukeela uste dut: aurre-nik eta nagusienik behintzat.

RAM

la leche de cada día



CENTRAL LECHERA VIZCAINA, S.A.